



AMOREBIETA - ETXANOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AMOREBIETA - ETXANO

PUBLIZITATEKO KARTELERA ETA PANELAK JARTZEKO BAIMENEN EMATEA ARAUPETZEN DUEN ORDENANTZA

- 1.- Kale bidetik ikus daitezkeen publizitate-panelak edo publizitateko beste elementu batzu jartzeko, udal-erakunde-aren baimena behar da.
- 2.- Publizitate panel edo kartelera: material sendo eta iraunkorrez egindako elementu fisiko markoduna da, irudi erregularrekoa, zeina bakoitzean eduki desberdina izango duten kartelak eta eransgarriak jartzeko den.
- Errotulua: Publizitate mezua gauzatzen duen euskarria, berdin delarik espresio grafikoa zein motatakoa den -letrak edo zeinuak-. Publizitate mezua gauzatze hori errelebea sortzen edo sor dezaketen material iraunkor gorpuzdunez egingo da.
- 3.- Kartelerak orubeetan eta oraindik eraikitzen ari diren eraikinetan besterik ezin izango dira jarri, beti ere hiri aldea edo ingurua aldatzen ez badute, eta tokiaren apaintasun eta itxura onari kalte egiten ez badiote.
- 4.- Bide-sarearen inguruari dagokionez, Errepideei buruzko Araudiaren 74 edo 75. art.etan ezarritakoari jarraiki jokatu da, errepide horiek hirilurretik ez badoaz eta Araudi honetan baimenak jasotzeko ihardupide eta derrigortasunaz xedatuta dagoenaren kaltetan gabe.
- 5.- Publizitate panelak jarri ahal izango dira, beheko solairuetan egonik iharduketarik burutzen ez duten merkatal tegietan; publizitate panelok jartzeko baldintza orokorrak bete beharko dira, eta eraikinaren eraiketa-egitasmoan zehazturiko lonjen mugen barruan kokatu beharko dira.
- 6.- Eraikitzen ari diren eraikinetan ere jarri ahal izango dira publizitate panelak: kale-bidea okupatuz obraren ingurua zerratzen duen hesian, baldin badago eta okupazioa eta erabilera udal-baimen jakin batek babesturik egonez gero.
- 7.- Inoiz ere ez da gaindituko obraren eremua zerratzen duen hesia; ez dira gaindikintzat hartuko kartelera markoaren zabalera eta argi-gailuak.
- 8.- Goian beren beregi adierazitako salbuespenetan izan ezik, debekatuta egongo da instalazioarekin espazio publikoak okupatzea, debeku hau bai oinari bai hegalkinei dagokielarik.
- Administrazioak, erakunde mailako aldi baterako argipide-ekintzapideak direla eta, jarriko dituen kartelerak baldintza hauetatik salbuetsita daude.
- 9.- Debekatuta dago kartelerak eraikinen koronazio eta fatxada medianeretan jartzea; salbuespena: apaintasunaren aldetik gomendagarria izanik, udal-erakundeko teknikariek egoki baleritzote.
- 10.- Ez da kartelerak jartzeko baimenik emango, haiek jarriz gero inguruko etxebizitza edo tegien ikuspegi, argi edota aireztapenari kalte egingo baldin bazaie.
- 11.- Aurreko atalean adierazitako salbuespen berbera mantenduz, ezin izango da kartelerarik jarri eraikinei eratxikitako inguruetan, ezta horien ixte iraunkorretan ere, hala nola terraza, lorategi, ikastetxeetako patio, e.a.
- 12.- Debekatuta dago publizitateko kartelera edo panelak jartzea ikuspegia edo arte-ezaugarriak direla eta babestuta dauden inguruetan; baita, orokorrean, Kanpo Publizitatea araupetzen duen 1967ko apirialren 20ko Dekretuaren 2. art.ak aurrakusten dituen agiazko guztietan ere. Indarrean dauden Arau Subsidiarioen Erabilera-Arauetako 111. art.an

xedatutakoari jarraiki, erakunde pribatuek ezin izango dute publizitateko kartelik jarri landalurrean; erakunde pribatu edo publikoak daudela adierazteko, eta errepide, bide eta zerbitzu publikoei buruzko informazioa ematen duten kartelak besterik ez dira onartuko landalurrean.

13.- Kartelerak zutik jarriko dira, euskarri bidez ainguraturik; hori, teknikari aginpidedunak egindako Egitasmo bidez egiaztatuta eta bere Elkarrekin Profesionalak onartuta egon beharko da.

Egitasmo horretan ziurtatu egin beharko dira instalazioaren segurtasuna eta erabilitako materialen iraupen luzea ere.

14.- Zaingoa: publizitate instalazioaren jabeak egokiro zaindu beharko du, segurtasun eta iraunarazte aldetik, hura jarrita dagoen denbora guztian.

15.- Karteleraren inguruketa beti egon beharko da bere aurrean dagoen kale-sestra baino 2,20 m. gorago gutxienez.

16.- Baimenaren zehaztapidetzak egiteko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira eskaerarekin batera:

- Eskatzailea kanpo-publizitateko enpresen erroldan sartuta dagoela egiaztatze agiria.

- Egitasmo teknikoa; horrek, memoria eta aurrekontuaz gain, hauxe eduki beharko du:

1) Kokapen plano, Udal Erakundeak duen eskalarik haundienean.

2) Panelaren altxaera eta sekzioa, eta oinaren plano, zorua eta paramentuetan izango dituen proiektzioak zehazki adierazi beharko direlarik.

3) Argazkia, 3 x 11,5 zm.koa, puntu zehatzekoa eta ingurukoa; ongi ikusten den toki batetik aterako da.

- Publizitatea jarriko den lur edo eraikinaren jabearen baimen idatzizkoa

- Herrilege alorreko erantzunkizunari buruzko aseguroko itune-agiria; itune-agiri horren bitartez, panela jartzeaz eragin daitezkeen kalteei erantzungo zaie.

17.- Baimenak behin-behinekoak izango dira, eta urtebetez egongo dira indarrean, urte hori doakionari baimen-emate erabakia jakinarazten zaionetik hasiko delarik; datu hori instalazio guztietan agertu beharko da.

Epe horren sei hilabeteko luzapena eska daiteke, baten bakarrik. Horretarako, doakionak luzapen-eskaera egin eta instalazioaren %50ari dagozkion tasak ordaindu beharko ditu.

Publizitateko kartelerak jarritakoan baimena indargabetzea eskatzen duten eragozpenak agertzen baldin badira, teknikariak txostena egingo du eta ondoren Udal Erakundeak baimena indargabetu egingo du.

18.- Zigor-jaurpidea: 1) Ordenantza honetako aginduak ez betetzeak zigorra dakar: legeek ezartzen duten diru-kopuruko isuna jarriko da, hautsitako legea berrezar-tzeko beharrezko izango diren neurrien kaltetan gabe. Neurri horiek, lege-haustearen arabekoak, hauek izango dira:

a) Emandako baimenak indargabe-tzea.

b) Burututako lan edo instalazioetan beharrezko zuzenketak egin daitezela agintzea.

c) Behar ez bezala egindakoak botatzeko agintzea, edota, kasuan kasu, instalazioen zati bat edo

osorik handik kentzeko agintzea.

d) Indarrean dagoen legeriak aurrikusten duen antzerako beste edozein neurri.

2) Zigor edo isunak jartzerakoan, honako hau hartuko da kontutan: lege-haustearen garrantzia, interes orokorreki egindako kaltea, lortutako onura eta zigorra eragin duen egiketarekin zerikusia duten beste baldintza batzu.

Isuna jarri aurretik zigortutakoarekin hitz egin beharko da; eta instalazio osoa edo haren zati bat kentzeko agindua bete ezean, isun gehiago jarriko zaizkio legea hautsi duenari.

19.- Ordenantza hau haustegatiko erantzunkizuna: Ordenantza honetan xedatutakoa hautsiz gero, ondorengo hauek izango dira errudun:

a) Lehenengo eta behin- publizitate enpresa, edo iragarkia jartzeko agindua eman duen pertsona edo erakundea, iragar-ki hori baimen edo eskubidea izan gabe edo Ordenantza honetan emandako arauak ezartzen dituzten baldintzak hautsiz jarri badu.

b) Iragarkiak jarrita egondiren lurraren, eraikinaren jabea edo instalazioaren baimenduna.

ALDIBATERAKO ERABAKIA

Jarrita dauden publizitateko panel eta kartelerek bi hilabeteko epea dute Ordenantza honetan emandako erabakiak betetzeko, eta, hala badagokio, baimena eman dakizkien eskatzeko. Baimen hori lortu ezean, instalazioak kentzeari ekingo zaio.

Amorebieta-Etxanon, 1993ko irailak 3an

ALKATEAK,